



ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza Z/G. IGELDO
Tfona. : 943-313030 e-posta: infogeldo@euskalerrria.org



25 ale

25 ale

Zorionak Orri

25 ale

Informatiboa!!!

25 ale

25 ale

25 ale

25 ale

Kaixo herrikide!!!

ETA ZORIONAK Orri Informatiboari! Esku artean duzun ale honekin 25 ale kaleratu dira eta ospatzeko moduko arrazoia bada. Hori dela eta, hainbestetan eskatutako argazkia jartzea erabaki dugu, orri haue- tan zer istorio eta berri landu erabakitzen dugunak zeintzuk garen herriari aurkezteko: Larraitz eta Karmele.

Hala ere, guk bakarrik ezingo genuke guztia aurre- ra eraman, ezta ere etxe guztietara iritsi. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu kolaboratzaileei, bana- tzaileei eta lehenengo hastapenak eman zituztenei.

Horrez gain, 25 aletan guztiok egindako lana ez dugu hitzez bakarrik eskertu nahi eta ohiturari jarrai- tuz mahai inguruan ospatuko dugu.

Gure aldetik aipatu nahi dugu, lan hau hartu genuenetik *aldizkari* itxura ematen saiatu garela eta nahiz eta oraindik egiteko asko izan, aurrera begira hobetzen jarraitzeko asmoa dugula. Horretarako

herritarrek parte hartzea gustatuko litzaiguke. Edozein ideia eta proposamen jasotzeko irekita gaude. ■

Udazken jaia nola joan zen balorazioa....

Aurten bi egunez ospatuko da Udazken Jaia; urriaren 24 eta 25ean. Ekintza mordoxka izango dira, besteak beste, haurrentzat gozogintza, kale-antzerkia, sardinada, azoka eta bazkaria.

Aurten ere, Udazkenean sartzeare- kin batera, jai giroa izango dugu herrian. Urriko azken asteburuan, 24 eta 25ean, Udazkeneko Jaia izango dugu, azken urteetako ohi- turari jarraituz, eta ziur izan, giro ederra izango dela bai larunbata zein igandean.

Larunbatean, hurrek gozo- gintzan aritzeko aukera izango dute, eta presta- tzen dituzten gozokiak pro- batzeko aukera izango da igan- deko azokan. Gauean berriz, kale-antzerkia izango da, afal osteko sardi- nen usainean.

Martina eta Patxi Olasagasti anai-arrebak omenduko dira aurten ere.

Igande goizean, urtero bezala, herriko baserrietako produktuak eta animaliak izango dira erosgai eta ikusgai. Egunean zehar berriz, aspalditik egiten dugun moduan, herriko zaharrek izango dute pro- tagonismoa, bazkaritara gonbida-

tuz eta aiton-amona zaharrenei merezi duten omenaldia eginez. Aurten ere, iaz bezala, Patxi eta Martina Olasagasti anai-arrebak izango dira aipamen berezia jaso- ko dutenak. Zorionak eta urte askuan! ■

Azoka ederra izango da igande goizean.

Gogoratzen al duzu erreferenduma egin zen eguna? Nola bizi izan zenuen? Bozkatu zenuen?

Eta orain nola ikusten duzu egoera?

Juankarren anaia eta arreba Laura:

Anaia: gogoratuko ez gara ba!

Laura: bai, eta hor egon ginen egun osoa eta gero zenbatzen...

Anaia: Eta alde bozkatu genuen, noski! jajaja.

Laura: ilusioa. Krixton indarra.

Anaia: prozesua bukatzeaz dagoela. Falta zaizkigu bi-hiru hilebete, bi-hiru urte. Ez dakigu zehazki, baina bukatzeaz dago.

Laura: trixte. Nik uste indar hori pixka bat jaitsi egin dela. Arranke hori. Jendea orain dago zain, zain, zain... Independentziaren zain! jajaja.

Mikel Altuna eta Jon Lizarazu.

Jon: Ez dut ezer gogoratzen, apenas ezer ez. 15 urte neuzkan. Ni oraindik gaztea naiz!

Mikel: Bai, bai. Ilusioa, orain nabarmentzen dena baino askoz ere gehiago orduan, momentuan behintzat. Orain geldik ikusten dut. Oso hila bezala. Beti buruan daukagu, baina utziagoa bezala dago. Orduan momentuan krixton indarra zegoen, inplikazio gehiago jendeak.

Txokolatene

Andrea: krixton ambientea zegoen! gaurkoa bezala. Hamabost urte galdu ditugula alfe-alferrik. Orain dela hamabost urte behar genuen herria izan. Martxa honetan urruti ikusten dut.

Bi amonak: oso giro ona zegoen, gaur bezalaxe. Orduan jendea gogoarekin zegoen, eta gaur ere bai. Gazte jende handia dago eta zeoze egin behar duzue eta egingo duzue. Gogoakin ikusten zaituet.

Mariano: etorri nintzen bai. giroa nahiko dextente. Ilusioa bai, abiadura baino gehiago igual. Gaur egun, orduan baino gutxiago dut nik behintza, zahartu egin naiz eta! Hori gazteen esku dago orain, baina etorkizun arriskutsua ikusten dut...

Miren: Bozkatu nuen, bai. Nik uste zegoela krixton indarra herrian. Nazka bezala

Donostiarekiko eta krixton indarra herrian. Krixton ilusioarekin eta ondo. Gaur egun ikusten dut nekea, ez dutelako behar den bezala erantzun, ez dutelako gure hitza errespetatu eta luzatu egin delako. Baina nik uste dut oraindik badagoela indar nahikoa hori aurrera ateratzeko.

Jose Ignacio: Nahiko giro polita eta behar bada atera zen espero ez genuen bezala.

Pentsatzen genuen, agian, jendea banatu egingo. Hiru aukera zeuden: desanexioa, deszentralizazioa edo geunden bezala egotea. Eta pentsatzen genuen agian berdintsu, oso parekatuta egongo zirela aukera bat edo bestea. Eta azkenean, jendeak oso argi eduki zuen desanexioaren alde zegoela. Eta hori azaldu zen. %60a ia ez da uskeria, kontuan izanda aukeretako bat zela. Nik uste oso garbi azaldu zela jendearen nahia.

Koldo: orain jendea zain dago; erabakiaren zain. Eta nik uste ateetan gaudela, beste egoera batera pasatzeko.

Jose Ignacio: Gazteek orduan parte hartu ez zutenek ere ikusten da geroz eta argiago daukala behar hori. Hurrengo urtean bazkaria, baina Udaletxean. Gure Udaletxean.

Lertxundi: ni Donostiatik etorri nintzen eskapan eta llegendon bizi naiz ondo. Bozkatzera etorri nintzen baina ez dut eguna ondo gogoratzen, zahartu egin naizelako! Garai hartan ilusioa zegoen, baina gero moteldu egin zen eta orain berriz animatua ikusten dut jendea. Zikloak izaten dira eta orain berriz goraka goaz, ilusioz.

Joxe: Orain dela hamabost urte jendea oso berotua zegoen. Ni harrituta utzi nauena da hamabost urte hauetan zergatik geratu garen galduta. Gaur ostera, giroa berotuta. Bihar zer gertatuko da? Ostera hotzaldia eta beste hamabost urte itxaron behar dugu, borroka honi aurrera egin gabe? Hori da tamalgarria. Nik uste dut egunetik egunera eramane behar dugula borroka hau aurrea herri egin arte. Hori da nire iritzia.

Eneko: nik bozkatu nuen bai, eta gogoratzen dut Hernanin krixton parranda bota genuela. Asko poztu ginen emaitzarekin.

Bofa puntua

Ez da berdina
Monte Igeldo
ta Igeldoko mendia
esanahi bera izan arren,
badu bere historia
gaurtik aurrera izango dezu
hor jarrita iritzia
hantxen jarrita utzi baidegu
herri honen mugarría
handikan gora hasiko baita
igeldotarren herria.

Herrian ze berri?

LUDOTEKA

Negu giroa hurbiltzen doan heinean, berriro ere martxan hasiko da Ludoteka. Arratsaldeak mozten eta hozten hasi orduko, ondo pasatzeko aukera izango dute herriko haurrek Ludotekako goxotasunean. Guraso elkarteko eta Kixmiko kideen arteko elkarlanean aurrera eramango da aurtengo denboraldia, eta ziur izan gozatzeko aukera izango dela, jolas, ipuin eta sortzen diren ideia berriekin.

LIZARDI PILOTA ELKARTEA

Lizardi Pilota elkarteak, urtero bezala gastuei aurre egiteko Gabonetako Loteria saltzeko erri-fak atera ditu. Herriko taberna ezberdinetan erosteko aukera izango da eta bestela Pilota Elkarteko kideek ere izango dituzte salgai. Errifak 5 euroko balioa dute, horietatik 4€ izango dira jokatzeko direnak eta 1€ laguntza moduan ematen dena. Nahi duenak beraz badaki, karterako xoxak bildu eta erosi!

HERRI KONTSEILUAK ESKAINITAKO LANPOSTUA

Aukeratu da Herri kontseiluak eskainitako lanpostua beteko duen pertsona. Guztira zazpi pertsona ezberdinek aurkeztu zuten beraien Curriculum-a eta horietatik 6 izan ziren Irailaren 26an egin zen hauta-probara aurkeztu zirenak. Aukeratua, egindako proba horretan puntuazio altuena atera zuena izan da, Nerea Lizarralde. Beraz, beharrezko gauzak hitz egin eta lotu ondorenean lanean hasiko da, azarotik aurrera.

Aurreko alean aipatu moduan, bete beharreko funtzio nagusienak hauek izango dira: herriko talde ezberdinek behar duten heinean idazkari lana egitea, kultur etxeko

koordinazio zein antolaketa eta kultur sustapena.

HERRI KONTSEILUAREN BERREGITURAKETA

Pasa den ostegunean, herri batzarrara egin zen Herri Kontseiluaren orain arteko ibilbidearen hausnarketa egiteko, eta aurrera begira, Igeldoren etorkizunean pentsatuz, berrantolaketa berri bat osatzeko. 1996. urtean egindako herri hauteskunde batzuen ondorioz osatu zen 13 urtetan zehar lanean arituen taldea eta egungo errealitateari erreparatuz, ordezkari berri bat osatzeko beharra premiazkoa dela ikusten da.

Ordezkaritza berri batetara iristeko prozesu bat martxan jarriko da datozen hilabeteetan eta deialdi berezia egiten zaie herritar guztiei hilabete hauetan zehar egingo diren bilera eta batzarretara inguratzeko eta parte hartzeko. ■

Gabonak

URRIAK 24, Larunbata

17:00etan HAURRAK GOZOGINTZAN. Azokarako gozoen prestaketa.

19:00etan DULTZAINEROEKIN kalejira herrian zehar.

20:00etan SARDINADA bikaina herriko plazan.

22:30etan "OTXOKO" kale antzerkia plazan.

URRIAK 25, Igandea

10:00etan Herriko produktu eta animalien AZOKA.

*(Azokan zehar, emakume baserritarrak era zaharrear
koltxoia egiten ariko dira)*

10:30etan MEZA.

11:00etan HAMAIKETAKOA herriko jubilatuentzat Kultur Etxean.

14:00etan BAZKARI GIROTUA, Din-Din elkarteak prestatua.

Ondoren txiste kontalaria: Gillermo Segurola.

Bertan, herriko aiton-amona zaharrak omenduko dira.

18:00etan TALOAK eta ERROMERIA.

*Bazkarirako txartelak Buena Vista, Txistu eta Txapela tabernetan egongo dira
salgai eta egunean bertan, txoznan.*



**Igeldoko
Herri
Kontseilua**

Laguntzailea:

